

berriak Triforio -tik



araba
álava

Lan-koaderno

Burualdearen estalkiak zaharberritzeko lanak behin betiko fasean daude

Bisitatu ahalko den gune berri bat eratuko da girolaren gangen eta transeptuko kaperen gainean

Hilabeteak dira katedraleko burualdea dela tenpluan egiten diren lanen epizentroa. Lehenengo fasean, kaperen gaineko erlaitzetan egin da lan, eta, orain, tenpluak eremu horretan estalki berriak edukitzea ahalbidetuko duten obrak hasi dira. Gainera, balioa emango zaio tenpluari, bisitatu ahalko diren ibilbide berriak sortuko baitira.

Proiektuak 920.000 euroko aurrekontua dauka, eta Santa Maria Katedrala Fundazioak finantzatu du, Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin. Bestalde, Construcciones y Restauraciones Rafael Vega SL enpresari esleitu zaizkio lanak, eskarmentu handia baitauka ondare historiko-artistikoa zaharberritzeko lanetan. Urteari geratzen zaion zatian eta datorren urtean egingo dira lanak.

Estalki berriak gaur egungoak baino pixka bat gorago egongo dira, triforioaren gaineko mentsulan berme hobea eduki dezaten. Kanpoaldetik kurbatuak eta arruntak diren ganga lauekin errematatuko da girola; argi ikus daiteke obra modernoa dela. Alboetan, berriz, transeptuaren ertzetan, konponketa soila egingo da harlangaitzeko hormetan, aurreko obratik berreskuratuko diren eraikuntza-materialak baliatuz.

Berritasun nabarmenenen artean, bisitatu ahalko den gune berria dago, zeina girolaren gangen eta transeptuko



kaperen gainean egongo den. Triforiotik iritsi ahalko da bertara, arrapala-sistema baten bidez, transeptuaren iparraldean eta hegoaldean, bisiten ibilbide orokorrean integratzeko. Laburbilduz, gutxi gorabehera 600 metro karratu dituen azalera egingo dira lanak. Tenpluan egiten diren lanetan ohikoa denez, beste toki batzuetako material, egur eta harri kopuru handia aprobetxatuko da. Xehetasun gisara, estalkietan 13.319 teila berrerabiliko direla nabarmendu daiteke, eta beste 18.000 teila gaineratuko zaizkiela horiei.



Uda musikala Santa Marian



Uztailean eta abuztuan, hainbat musika-proposamenen agertoki izaten jarraituko du Santa Maria katedralak. Uztailearen 15ean, Manilako Santo Tomas Unibertsitateko abesbatza (Filipinak) hartuko du erdiguneko nabeak. Abesbatza mistoa Arabara itzuliko da, sortu zenetik 25 urte igaro direla ospatzeko ekintzen esparruan. Aurreko bisitatik hona, nazioarteko 34 bira egin ditu Asian, Europan, Amerikan eta Australian. Nazioarteko sari ugari irabazi ditu; Luciano Pavarotti sari handia da garrantzitsuena.

Uztailak 15, igandea, 20:00etan
Erdiko nabean
Sarrera doan lekua bete arte



Uztailak 28, larunbata, 20:30ean, Elizpean
Sarrerak: www.abiertoporconcierto.eus / Bisitarien Zentroa
Prezioa: 10€ / 6€ Fundatzaileen Elkarteak bazkideentzat

berriak
Triforio-tik


Horien ostean, José Tomás Jiménez 'Pozo la vid' kontzertuaren txanda izango da, uztailearen 28an. Maila handiko gitarra-jotzailea da, eta 'Bordón Minero' saria jaso zuen Unioneke Meategietako Kantuen Nazioarteko Jaialdian, Murtzian, 2014an. Halaber, gitarra solistaren lehenengo saria irabazi zuen Kordobako Gazte Flamenkoen X. sariketan 2012an, eta Pegalajarreko Kantu Lehiaketako interprete ofiziala izan zen 2009aren eta 2011ren artean. Egun 'Las Minas Puerto Flamenco' ikuskizunean parte hartzen du, Espainiako antzokietatik (horien artean, Errege Antzokia) ibilbidea egiten ari den bira historikoan.

ZINEMA ELIZPEAN

Santa Maria plaza uda honetan berriz bat-bateko zinema-areto bihurtuko da. Aurten jende guztiarentzako aukerak lau saio egongo dira. Sarrera librea izango da.



Gainera, Katedralaren aterpetxeak, beste urte batez, uztailearen 23aren eta abuztuaren 3aren artean Zineleku parte hartuko duten hogeita hamar bat gazte hartuko ditu. Parte-hartzaileak,



ikus-entzunezkoetako etorkizuneko sortzaileak horiek, elkarrekin biziko dira hamabi egunez, eta, bitartean, zinema-tailerretara, profesional zinematografikoek emango dituzten maisu-eskoletara eta beste arte-diplina batzuetako eskoletara joango dira. Inguru honetan, David Arratibelen 'Converso' dokumentala aire zabalean proiektatzea programatu da, uztailearen 23an, 22:00etan, Santa Maria plazan, doako sarrerarekin.

Uztailaren 1etik 12ra bitartean, aldiz, Gazte Rocken parte hartuko duten gazteak egongo dira aterpetxean, Arabako Foru Aldundiak musikaren inguruko jakin-mina dutenentzako, batez ere, rocka, antolatzen dituen udalekuak.